



Zeberio Udalak, 2019ko zemendiaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran, adierazpen instituzional hau onartu eban:



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

ZEBERIOKO UDALAREN **AZAROAREN 25**EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

2019KO "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZINOARTEKO EGUNA" INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI ERREPARAZINORAKO TOKIKO EKINTZAK

Azaroaren 25a (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazinoarteko Eguna) dala-eta, indarkeria matxistaren egitura-izaera nabarmentzen dogu, eta jendarte libre eta bardinzalea eraikitzeke daukagun konpromisoa agertu nahi dogu. Era berean, nazinoarteko esparru juridikoagaz bat etorrita, berresten dogu beharrezkoa dala ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: prebentzinoa, hautematea, arreta, babesa, koordinazinoa eta justizia, arreta berezia jarrita biktimei, bizirik atara diran pertsoneri eta seme-alabei erreparazinoa emotean.

Biktimei erreparazinarako printzipioak beragaz dakar biktimak eskubide-urraketa bizi aurreko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diran ekintzak martxan jartea. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedetzat hartzen da biktimaren bizi-baldintzak funtsean hobetzea, urratutako eskubideengaitik erreparazinoa jasota eta eragindako minetik berrezarrita. Era berean, ahalduntze-prozesua bultzatu gura dogu, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartu daiten.

Zeberio Udalak biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortuta daukagun erantzukizuna eta eskumena gure gan hartzen dogu, gure herrian indarkeria matxista jasaten daben emakumeengandik hurbilen dagoen erakundea garelako. Zentzu horretan, udal honek, udalerriko hainbat gizarte-eragileguz lankidetzan, indarkeria jasaten daben emakumei arreta emoteko udal-protokoloa sortzeko lanean dabil gaur egun.

Tokiko esku-hartze politikoa funtsezkoak da komunitate-bizitza eta erreparazino publiko-soziala lehengoratzen laguntzeko indarkeria matxistaren biktimen eta biziraun dabenen ingurune hurbilenean.

Hori holan, Zeberio Udalean gure konpromiso politikoak beteteko jardun nahi dogu, eta, horren bidez, indarkeria matxistaren modu guztiak desagerrarazten lagundu, modu honetan:

- Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharrizan eta eskariei entzunez eta arreta emonez.
- Eskura daukaguzan baliabideak jarrita, ikuspegi feminista bategaz konpontze-eta ahalduntze-ikusmoldea emongo daben langile espezializatu eta kualifikatuengana bideratzeko.
- Erreparazinarako esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.



- Tartean sartutako erakunde guztiekaz koordinatuz, arreta eta erreparazinarako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratuko dala eta urratutako eskubideak berrezarriko dirala bermatzeko.
- Eragile sozial egokiekaz lankidetzan jardunda, bardintasun-politikak eta ekintzak diseinetako, biktimei eta bizirik atara diran pertsoneri arreta eta erreparazinoari jagokonez.
- **Era berean, dei egiten deutsegu herritar guztiei, udalerrri guztietan A25 dala-eta antolatuko diran salaketa- eta aldarrikapen-ekintzetan modu aktiboan parte hartu daien.”**